



Asteazkena
2010-06-09

VIII. URTEA 2.022. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako babarruna ereiten ibili ziren atzo Tolosako Emeterio Arreseko lorategian. A. IMAZ

TOLOSAKO BABARRUN ELKARTEAK 45.000 KILO BILTZEA ESPERO DU

TOLOSA Hirukide eskolako ikasleen laguntzarekin, ekitaldi sinboliko batean 2010eko lehen uzta erein zuten Emeterio Arreseko lorategian

Etxean da Mikel Garmendia euskal preso

POLITIKA Atzo utzi zuten aske 15.000 euroko bermea ordainduta; 2009an atxilotu zuten €



Arrakastaren pailazoak Iruran izango dira hilaren 16an. I. GURRUTXAGA

Pirritx eta Porrotxen emanaldia Ikastolaren alde

IRURA Euskal Herriko pailazo ospetsuenak etorriko dira hilaren 16an; sarrerak salgai daude s

**NAZIOARTEKO
KOMUNITATEAREN**

parte-hartzea **ORAIN !**

Facebook-en:

**Plataforma de Guipúzcoa
con Palestina**

Galtzerdi motako txotxongiloak egiten ikasteko tailerra

Antzerkia » Uztailearen 2an eta 3an izango da Topic-en eta 6 urtetik 12 urtera bitarteko gaztetxoei zuzendua egongo da.



Topic-en izango da tailerra. HITZA

ERREDAKZIOA

Gaztetxoei zuzenduriko hainbat tailer antolatu dituzte dagoeneko Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan, eta hainbat eratako txotxongiloak egiten ikasi dute. Oraingo honetan galtzerdi erakak egiten ikasteko ikastaroa antolatu dute. Uztailearen 2an eta 3an izango da, eta 6 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzendua izango da.

Gaztetxo guztiak ohituta daude telebistan txotxongiloak ikustera. *Los Lunnis* edota *Barrio Sesamo* bezalako programak haien egunerokotasunaren zati bat dira telebistaren aurrean eta horrelako programak naturaltasunez ikusten dituzte. Bada, tailer honetan gisa horretako pertsonaia erakitzeko oinarriko arauak erakutsiko dituzte, eta behin hori ikasita, ikasleek euren protagonisten istorioak asmatuko dituzte. Gainera, istorio horiek telebistarako balira bezala egiten ikasiko dute, kamara aurrean grabatuko baitituzte.

Bi egunetan emango dute ikastaroa, uztailearen 2an eta 3an, eta 11:30etik 13:00etara. 6 eta 12 urte arteko umeek parte hartu ahaliko dute, hau da, Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren kurtsuan ari direnek, eta gehienez, 20 ume-erentzako lekua egongo da. 15 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko. Ikastaroaren inguruan informazio gehiago behar izanez gero, 943 65 04 14 zenbakira hots egin daiteke edota www.topicitolo.com webgunera jo.

Manuel Roman *Los Lunnis* saioaren sortzaileak emango du ikastaroa. La Deliciosa Royala antzerki konpainiakoa da, eta txotxongiloak sortzen maisua da. Txotxongiloekin loturiko hainbat lan eman ditu telebistara, arrakasta handiarekin, gainera.



Giro «polita» akordeoi topaketan

MUSIKA » Pasa den larunbatean Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolak eta Loatzoko musika eskolak elkarrekin parte hartu zuten Pasaian egindako akordeoi-topaketan. Abesti ugari jo zituzten, kurtsuan ze-

har bakoitzak bere eskolan aurretik landutakoak, eta «oso giro polita» jarri zuten denen artean. 300 akordeoi-jotzailek gain, metal eta perkusioak eta koruak kantuan aritu ziren. HITZA

Peñascal Fundazioak hiru ikastaro eskainiko ditu datorren ikasturtean

Hezkuntza » Soldadura, arotzeria metalikoa eta sukaldari eta zerbitzari ikastaroak izango dira 16tik 18 urtera bitartekoentzat.



Ikastaroak doakoak izaten dira Peñascal Fundazioan. I.T.

ERREDAKZIOA

Peñascal Fundazioak Tolosaldea Garatzenekin batera, Prestakuntza Profesionalerako Hastapeneko Programaren barruan hiru ikastaro eskainiko ditu datorren ikasturtean: soldadura ikastaroa, arotzeria metalikoaren ikastaroa eta jatetxe eta tabernerarako sukaldari eta zerbitzari ikastaroa.

Kurto bakoitzak bi urtetan banaturiko 2.000 orduko iraupena du, eta horietatik 400 eskualdeko enpresetan eginiko praktikak izango dira. Beraz, formazioa, batez ere, praktikoa izango da, baina arlo teorikoa ere izango du, eta horlanbideak eskatzen dituen alorrak jorratuko dituzte.

Horrez gain, ikasleak eskola-graduatuaren titulua lortzeko ere prestatuko dituzte. Izan ere, EPA iaera du Peñascal Fundazioak, eta horregatik da posible bertan graduatua lortzea ikasleak bestelako formazioa egiten ari diren bitartean. Hala, behin ikastaroa arra-

kastaz amaituta, ikasleek lanean hasteko aukera dute, edo bestela ikasten jarrai dezakete Gradu Erdiko zentroetan.

Doako eskaintza

Ikastaro hauetan 16 eta 18 urte bitarteko gazteek hartu ahaliko dute parte, eta eskola-graduatu ez izatea izango da beste baldintzetako bat.

Prestakuntza Profesionalerako Hastapeneko Programak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza sailak bultzatu eta finantzatzen ditu, beraz, doakoak dira. Ikasleek egutegia ondorengoak izango da: irailetik ekainera, 08:00etatik 14:00etara. Ikastaroen inguruko edozein za-

lantza izanez gero, edota informazio gehiago jakin nahi izanez gero, 943 67 61 61 edota 943 67 51 95 zenbakietara hots egin daiteke. Bestalde, Peñascal Fundazioatik diotenez, bertako ateak irekita daude zentroa (Usabal-Amarotz industrigunea) bisitatu nahi duen ororentzat.

Peñascal Fundazioa erakundearen 15 urte daramatzate lanean gisa honetako formazioa eskainiz eskualdean. Bertatik adierazten dutenez, «bizi garen garai honetan ezinbestekoa da gazteek euren formazioa areagotzea eta ongi prestatzea, eta horregatik da beharrezkoa gisa honetako formazioaren aldeko apustua egitea».

Laburrak

Bakardadeari buruzko hitzaldia, bihar, Amarotzen

GIZARTEA » Silvia Camiok *Bakarrik bizi zea*, eta *bakardadeari aurre egiteko moduak* hitzaldia emango du bihar, Amarotzeko Beti Gazteak jubilatuek elkartean, 18:30ean. Beti Gazteak jubilatuek elkartea antolatu du hitzaldia Aulas Kutxaren laguntzarekin.

Dastaketa lehiaketa, gaur, Illargi Coupage ekimenean

GASTRONOMIA » Hilaren 13ra arte Illargi Coupage gastronomia azoka izango da Zerkausian. Gaurkoan, 19:00etan dastaketa lehiaketa egingo dute, Esencia Ardotegiko Dani Cormanek eta Illargi Delicatessen-eko Eduardo Mansok bideratua. Hiru atal edukiko ditu: test espeziakoa, usainen mundua eta dastatze itsua.

Tolosa Kantarikoentzako entseguak, gaur, 20:00etan

MUSIKA » Tolosa Kantariko kideek entseguak egingo dute gaur, Musika Eskolan, 20:00etan. Hilero kantu-jira prestatuko dute, eta parte hartu nahi duen ororentzat irekia da. Hilabete honetako Tolosa Kantari hilaren 26an izango da, San Joan festen barruan.

Emakumeen ekarpenaz ikasketak beka abian da

GIZARTEA » Emakumeen ekarpenaz Tolosako historian Bigarren Ikerketa Beka deitu du Tolosako Udalak. 9.000 euroko beka izango da, 12 hilabetetan burutu beharko da. Oinarriak berdintasunatosakoudala.blogspot.com helbidean topa daitezke, eta lanak udaletxean entregatu beharko dira, bertako erretagiroan.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Gidariak behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

Lan publikoetarako zainzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.

607-25 42 40

2010eko babarrunaren lehen uzta Tolosa erdian erein dute

Ekonomia » Emeterio Arreseko lorategian babarrun landareak ikusteko aukera egongo da aurki.

ASIER IMAZ

Tolosa erdian erein zituzten denboraldiko lehen babarrunak atzokoan. Emeterio Arreseko lorategian, Goroldiko langileek baratza prest jarri zuten goizean goiz. Ondoren, gonbidatu ugariaren begiradapean, Tolosako babarrunaren 2010eko lehen uzta erein zuten.

Aurkezpen ekitaldian ondorengo pertsonaiak izan ziren: Rafael Uribarren, Landa Inguruaren Garapenerako Diputatu; Jokin Biddarratz, Tolosako Alkatea; Nerea Letamendia, Tolosako Udaleko Turismo eta Feriak departamentuko lehendakaria; Mari Karmen Iradi, Tolosako Babarrunaren elkarte lehendakaria; Josemi Gomez, Tolosako Babarrunaren Kofradiako lehendakaria eta Tolosako jatetxe eta tabernetako ordezkariak.

Hauekin batera, Hirukide eskolako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak erein ziren.

» DATUAK

Tolosako Babarrun Elkarteak

- **Ekoizleak.** 55.
- **Hektareak.** 26
- **Kiloak.** 1.050.000 babarrun landare: 650 kilo hazi.
- **Artoa.** 200.000 arto landare; 80 kilo hazi.
- **Sistema sare.** 95 kilometro sare. Hau zabalteko, 24.400 hesola/euskarri.
- **Parda sistema.** Burnizko 86.000 barilla; egurrezkoak/kainaberak berriz, 4.700.
- **Ekoizpen ahalmena.** 45.000 kgr. Tamalez eta ohi den bezala, eguraldiaren eraginez, gaixotasunak etab. ez dira iritsiko.

Babarrunak ereiten

Babarrunak ez dira landatzen, erein baizik. Ikastaro azkarrak emateaz gain, Tolosako Babarrunaren elkarteko kideei lan egitea tokatu zitzaizen atzokoan. Hirukideko ikasleekin batera, eurek erein zituzten babarrun aleak, zuloko bi. Ondoren Goroldiko langileen txanda iritsi zen, baratza ingurutzeta tokatu baitzitzaizen. Aurrerantzean ere eurek zaindu beharko dituzte landareak.



Hirukide Jesuitina ikastetxeko haurrek erein zituzten lehen babarrunak. ASIER IMAZ

Aldaketa soziala gero eta hurbilago ikusten dute

Tolosa » Eskualdeko Herria Abian ekimenak hitzaldia antolatu du gaur, 19:30ean, Kultur Etxean; bihar mobilizazioa egingo dute.

A. IMAZ

Herria Abian ekimenak egungo egoera soziala aldatu egin nahi du. Aldaketa hitz hutsala bilakatu ez dadin, abiapuntua zehazten aritu dira eta dagoeneko adostu dute, azken asanblada orokorrean. Auzoz auzo, herriz herri eta hiriburu hiriburu sortutako ekimenak, modu berean plazaratuko du aldaketarako abiapuntu hau.

Tolosaldeko Herria Abian-ek ekimenaren inguruan indarrak batzeko saiakera egingo du gaur eta bihar. Lehen egunerako hitzaldia eta afaria antolatu dituzte eta bigarrenarako mobilizazioa. Tolosako INEM-eko egoitzaren aurrean elkartzeko dira bigarren ekimen honetarako.



Aldaketarako abiapuntua

Herria Abianek besteak beste ondorengo puntuak azpimarratu ditu: «Guztiok lan egiteko, ordu gutxiago egin behar dira»; «Aberrastasunaren banaketa»; «Ekonomiaren demokratizazioa» eta «Ekosistemaren garapen demokratikoa».

Aldaketa sozialaren abiapuntua ardatz hauen gainean finkatu dute.

Ardatz bakoitzaren inguruan eta oro har ekimenaren inguruan informazio gehiago nahi duenak, www.herria-abian.org webgunean sartzea nahikoa izango du.

Eskualdean egingo diren ekimenetan parte hartzeko deialdia ere luzatu dute. Tolosaldeko Herria Abianen parte hartu nahi duenentzat berriz, atek zabalik dituela azpimarratu dute.

» EKIMENAK

Tolosaldeko Herria Abian

■ **Gaur, hilak 9.** 19:30ean Tolosako Kultur Etxean, hitzaldia. Ondorengo gaia aztertuko da bertan: *Tolosaldea eta Euskal Herriko egoera sozioekonomikoaren analisia eta aldaketarako abiapuntua.*

Ondoren afaria egingo dute Tolosako Oargi Elkarteak.

■ **Etzi, hilak 11.** Tolosako INEMeko bulegoetan, 19:30ean, mobilizazioa. *Tolosaldeko aldaketa soziala* lelopean.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Ikasleentzat etxebizitza alokatzen da Gasteizen. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 945 30 0130.

GALDUTAKOAK

■ **Ikaztegieta.** Maiatzaren 23an Ikaztegieta plaza graduaturiko baturekoak aurkitu ziren. Galdu dituenak dei dezatela udaletxera (943 65 33 29).



Txangoa Arrikutz kobazulora

BALIARRAIN ● Igangandean egun pasa ederra egin zuten, Baliarraingo guraso eta umeez. Oñatiko Arrikutz kobazuloak bisitatu zituzten goizean. Ordubeteko txangoaren

ondoren bazkaldu egin zuten. Arratsaldean herria bisitatu zuten. Euskal Selektzioaren Eguna zela probestuz, Porrotxekin egoteko tartea izan zuten gaztetxoek. **HITZA**



Kirolari Ateak Irekita Eguna

ALTZO ● Goizean txangoa egin zuten herri inguruan. Bertan, gaztetxoek, mendietan dauden landare eta zuhaitzak zeintzuk diren ikasi zuten. Bide batez, begiak jasotakoa, ar-

gazi kameretan gorde zuten. Herrira itzultzean, hamaiketako egin zuten pilotalekuan. Arratsaldean, herriko gazteek pilota partidak jokatu zituzten. **HITZA**

Urdaibai parke naturalera irtenaldia jubilatuentzat

Ikaztegieta » Bizkaiko kostaldea bisitatu ondoren, bazkaldoan, Gernika ezagutzeko aukera izango dute.

ERREDAKZIOA

Egun pasa ederra egiteko aukera dute Ikaztegieta jubilatuek, ekainaren 17an.

Euskal Herriko lekurik ederrenetarikoa bat ezagutzeko txangoa antolatu du Udalak. Gaztelugatxeko eskailera igo eta baselizako kanpaia jo ondoren, Bermeo bisitatu dute. Arrantzaleen herriak, Santimamiñeruntz abiatuko dira.

Kobazuloaren inguruan dagoen Lezika jatetxean bazkaldu ondoren, arratsaldean, Gernikara joango dira: Juntxa Etxea eta Bakearen Museoa ikusteko aukera izango dutelarik bertan.



Gaztelugatxeko San Juan baseliza X. mendean eraikia da. **HITZA**

Izen ematea

60 urtetik gorakoak eta hauen bikotekideak edo ezkonkideak apuntatu daitezke.

Izen emateko azken eguna ekainaren 14a da.

Bazkaria bakarrik ordaindu be-

harko da izen ematean, 28 euro. Autobusa 08:45ean aterako da udalaxe ondoko zubitik.

Orain arte Udalak, urtean bi txango antolatzen bazituen ere, aurten, Bizkaiko kostaldera egingo dena, bakarria izango da.

Amezketan, ongi pasatzeko aukera izango dute uztailean

ERREDAKZIOA

Udan herri mugitu gabe, ongi pasatzeko aukera izango dute Amezketako gazteek. 2-12 urte bitarteko neska mutikoak parte hartzeko aukera dute, Udaleku irekietan. Hilabetez, uztailean, astelehen, asteazken eta ostiraletan, 3 orduko saioak izango dira; 09:00etatik-13:00ak arte.

Izen ematea ekainaren 25a bitartean zabalik izango da. Apuntatzeko baldintza bakarra, herrian erroldatua egotea da. Seme alaba bakoitzeko 20 euro ordaindu behar dute gurasoek.

Hezitzaileak ere herrikoak

Udalekuetako hezitzaileak auke-

ratzeko epea ere, zabalik dago ekainaren 11 arte.

Baldintza nagusienak; Amezketan erroldatua egotea eta 18 urte beteta izatea edo aurten betetzea. Horrez gain, langabetua edo ikaslea izatea ere baloratuko dira.

Kontuan hartuko dira aisialdiko begirale edo zuzendari titulua izatea interesatuek. Baita, heziketarekin zerikusia duten ikasketak edukiak: irakasle ikasketak, pedagogia, psikologia, dinamizatzaile soziokulturala... Edota antzeko lanetan esperientzia izatea. Sorosle titulua ere aintzat hartuko da. Haurren matrikulazioa ezagutu ondoren, beharrezkoak liratekeen hezitzaileak kontratatuko ditu Udalak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Galtzaundik ludoteka antolatu du

TOLOSA ● 3-10 urte bitarteko haurrentzat dago zabalik ludoteka. Uztailearen 1etik 30era bitarte, 9:00etik 13:00etara: jolasak, eskulanak, irteerak, igerilekua, ipuin kontalaria... Izen emateko epea ekainaren 11tik 18ra 9:30etatik 13:30etara Galtzaundiko egoitza.

Pasaitik Hondarribira, txangoa ekainaren 13an

TOLOSA ● Alpino Uzturre Elkarteak antolatu du mendi irteera, Gipuzkoako kostaldera. Autobusa, Santa Klaratik irtengo da 07:30etan. Txangoaren iraupena, 7 ordukoa izango da. Bazkideek, 11 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 13 euro. Izen emateko telefonia 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com



Laburrak

Igandean Aizkardi Mendi Elkartetik Aralarra

VILLABONA ● Hilaren 13an, igandean, Aizkardi Mendi Elkartetik Aralarra irteera egingo dute. Aralarrik mendi buelta egiteko interesatuta duten guztiak, igandean, 07:00etan Olaederra Kiroldegira gerturatu baino ez dute egin behar.

Frontenis, eskuz edo palaz txapelketak Santioetan

VILLABONA ● Behar Zana Kirol Elkartek antolatuta, aurtengo Santio jaietan federatu ez direnek eskuz binaka, palan edota frontenis txapelketan parte hartzeko aukera izango dute. Bertan parte hartu nahi dutenek, izena emateko aukera zabalik dute Behar Zana Kirol Elkartean. Izena emateko azken eguna hilaren 10a da eta 19:00etatik 20:00etara egin behar da. Izena ematen dutenen arteko zozketa hilaren 11n 20:00etan egingo dute.

'Ibaialde' erakusketa ikusgai Trinketean

IRURA ● Irurako Trinketean, *Ibaialde* erakusketa ikusgai egongo da hilaren 14a, astelehena, bitarte. Eusko Jaurritzak ibai eta kostaldeari lotutako ekosistemen ezagupena bultzatzeko *Ibaialde* izeneko erakusketa mugikorra antolatu du. Bederatzi panelez osatuta dago eta edonork ikus dezake.

Minbiziaren aurkako prebentzioaren erakusketa

VILLABONA ● Umetoki lepoko minbiziaren aurkako prebentzioaren inguruko erakusketa interaktiboa prestatu dute. Lehen Hezkuntzako 6. maila eta DBH 4. maila bitarteko ikasleei zuzendua dago. Antolatzaileak, Minbiziaren aurkako elkartekoak dira eta Villabonako Zentroko Zatorra aretoan egongo da ikusgai, goizez, hilaren 10ean.

Bihar Umetoki lepoko minbiziaren hitzaldia

VILLABONA ● Umetoki lepoko minbiziaren inguruko hitzaldia izango da Txermin Ikastolako hirugarren solairuan. Fernando Cristobal medikuak emango du. Giza papilomaren birusean aditua da eta Donostiako Poliklinikan egiten du lan. Bihar osteguna, 17:00etan izango da. Inork joan nahi izanez gero, sarrera irekia izango da.

HITZA Txapelketako nagusien partida gaur

TOLOSA ● Gaur 19:30ean Beotibar pilotalekuan, VII. HITZA Txapelketako nagusien partida bat jokatu da. Apeztexea-Albisu bikoteak, Sukia-E. Galarraga izango du aurkari.

Hilaren 16an Pirritx eta Porrotx pailazoak Irurako pilotalekuan

Kultura ● Hilaren 11 izango da sarrerak erosteko azken eguna. Irura, Anoeta, Tolosa eta Ibarra daude salgai 8 euroren truke.

ERREDAKZIOA

Irurako Ikastolak, dirua ateratzeko helburuarekin beste ekitaldi bat prestatu du ikasturte amaiera honetan. Oraingoan, haurrei zuzendua da. Pirritx eta Porrotx pailazoak izango dituzte herrian.

Herriko pilotalekuan izango dira hilaren 16an, 18:00etan hasita. Sarrerak dagoeneko salgai daude leku ezberdinetan. Sarrera bakoitzak 8 euro balio du; hortik 2 euro Irurako Ikastolarentzat izango dira.



Pirritx eta Porrotxen ikuskizuna izango da. I. GURRUTXAGA

Sarrerak salgai daude

Antolatzaileek dagoeneko sarrerak salgai jarriak dituzte. Honako leku hauetan daude salgai: Irurako Ikastolan, Anoetako Kuku Lore

Liburu dendan, Tolosako Kopibat dendan eta Ibarra Lurdesen.

Txartelak erosteko azken eguna hilaren 11, ostirala izango da.

Foru Aldundiak Goiburu bidea konpontzeko laguntza onartu du

Aduna ● Inbertsioaren kostu osoa, 466.000 euro da. Foru Aldunditik jaso duten laguntza berriz 220.000 eurokoa da.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko hainbat herritan aurrera doaz Landagipuzkoa 32 programaren barruko diru laguntzak eta azkenetarikoa Adunakoa izan da. Diputatuaren Kontseiluak oniritzia eman berri dio Adunako Goiburua bidea konpontzeko lanak egiteari.

Lanen helburua 150 metroko luzera duen bide bat konpontzea da. Bide hau, herriko bi sagardotegietara, baserri batera eta etxebatzuetara iristen da.

Gaur egun egoera txarrean dago. Argi eskasak ditu, oso bide estua da eta uren bilketa ere kaskarra du.

Bidea zabaldu, argiak jarri eta espaloia egingo dute

Akats horiek zuzentzeko, bidea zabaldu egingo dute. Espaloia ere egingo diote eta bidea argiztatuko argiak jarriko dituzte. Era berean, ur hornidurako hodiak berritu, euri-uren hodiekin lotu eta argindar eta telefonoko kableak lurperatu egingo dituzte. Gainera, gas propanoko lotura etxearaino luzatzeko ere baliatuko dituzte orain hasi beharreko lan hauek.

Lan hauek egiteko inbertsio guztiaren kostua 466.000 eurokoa da, eta horietatik 220.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko ditu diru laguntza gisa.

Landagipuzkoa 32 programako proiektu guztiak gertatzen den bezala, Etorlur-Gipuzkoako Lurra sozietateari agindu zaio inbertsioa plana presta dezan eta aurreikusitako inbertsioak egin ditzan.

Aipatzekoa da Goiburua bidea konpontzeko proiektua, Adunako Udalak, Landagipuzkoa 32 programaren barruan diruz lagundutako bigarren proiektua dela.

Lehenengo laguntza, urte hasieran jaso zuen. Kultura jarduerak egiteko lokalak egokitzeko izan zen.

Asvineneak 'Collage' ikastaro trinkoa prestatu du astebururako

Aduna ● Ikastaro trinkoa hilaren 12 eta 13an izango da 10:30etik 13:30era. Bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu.

ERREDAKZIOA

Adunako Asvinenea Elkarte Kulturaleak, ikastaro berri bat antolatu du hilaren 12 eta 13rako. Ikastaro hau trinkoa izango da eta eskulana gustuko edota egonezin artistikoak dituztenei zuzendua dago.

Etxeko objekturen bat eraberritu edota apaindu nahi izanez gero, baliagarria izan daiteke. Aktore edo Clownentzat ere ikastaro egokia dela adierazi dute.

Ikastaroa, 10:30etik 13:30era izango litzateke eta bakoitzak 40 euro ordaindu beharko ditu. Irakaslea Izaskun Zarate izango da. Dekrazio ikasketak egin zituen bilbotar honek eta besteak beste, *Artasaleak de Zarautz*-en zaharberrikuntzako klaseak eman ditu. Marrazki eta pinturarekin ere lotura estua du.

Izena emateko aukera

Izena eman nahi duenak, www.asvinenea.com webgunean sartu beharko du. Bertan, izen emateko fitxa jaitsi beharko da eta orri hori, bakoitzak bere datuekin bete beharko du. Argi adierazi beharko da *Collage* ikastaro trinkoak dela. Behin fitxa datuekin beteta, asvinenea@gmail.com helbide elektronikora bidali beharko da.

Jarraian, Asvineneako antolatzailak interesatuekin harremanetan jarriko lirateke.

Sagain Mendi Taldetik egun osoko BTT irteera egingo dute Urbasara

Asteasu ● Hilaren 13an, igandean, izango da eta izena emateko azken eguna osteguna izango da.

ERREDAKZIOA

Asteasuko Sagain Mendi Taldeak, hilabete honetarako egun osoko BTT irteera prestatu du. Hilaren 13an izango da. Zailtasun errazekoa prestatu dute eta ibilbidea 30 kilometro ingurukoa izango da.

Irteera 08:00etan egingo dute udaletxe aurretik eta itzulerako ordua zehaztu gabe dago. Izena kiroldegian eman behar da eta horretarako azken eguna hilak 10, osteguna, izango da. 12 urtetik beherakoek 5 euro ordaindu beharko dute eta 12 urtetik gorakoek berriz, 10 euro.

Bisitatuko dituzten lekuen artean, Opakoan Cristianos kobazuloa (laku eder bat eta estalaktitak), Pilatoseko balkoia, Zudaire, Urederra erreka (bainulekuekin). Informazio gehiago nahi izanez gero, www.sagain.org helbidean eskura daiteke.

Abraham Olano kiroldegiko udako kirol eskaintzan izen emateko aukera

Anoeta ● Hilaren 26a bitarte izena emateko aukera dago. Aurtengo berrikuntza hip hop ikastaroa izan da.

ERREDAKZIOA

Anoetako Abraham Olano kiroldegian udako eskaintza jarri dute. Izen ematea zabalik dago hilaren 26a bitarte eta bertara joanda apuntatu beharko da.

Eskaintzen artean: aerobik, pilates, hirugarren adineko gimnasia, multifitness, kenpo kai, cycling, hip hop hasiberrientzat, patinaia hasiberrientzat eta patinaia ikastaroak daude. Aurtengo nobedadea hip-hopeko ikastaroa izan da. Orduetgia eta egunak kiroldegian bertan zehaztuak daude. Bestalde, Anoetan erroldatuak direnek deskontuak izateko aukera izango dute. Ikastaroak uztailaren 5etik aurrera izango dira.

Bestalde, kirol ludoteka ere eskainiko da uztailaren 1etik 16ra. Egutegia 10:00etatik 13:00etara izango da eta HH1 eta LH6 arteko umeei zuzendua dago eta 35 euro ordaindu beharko da.

Mikel Garmendia euskal presoak, etxean

Politika » Asteburuan Tolosaldeko hiru autobus joan ziren Herrera de la Mancha eta Alcaraz de San Juan espetxeetara.

ERREDAKZIOA

Mikel Garmendia billabonatar euskal presoak aske geratu zen atzo. Goizean, lehen orduan, ordaindu zuten epaileak ezarritako 15.000 euroko bermea eta segituan abiatu ziren senide eta lagunak Madrileruntz, Mikel Garmendiari ongi-etorria egiteko. Villabonara iluntzean iritsiko zirela espero zuten.

Horiek horrela, Villabonako Ezker Abertzaleak, bere «poza» ager-



Tolosaldeko hiru autobus joan ziren asteburuan espetxeetara. HITZA

tu nahi izan du, «Mikel gure artean izango dugulako». «Besarkada beroak eman nahi dizkiegu eta gure poza elkarbanatu espetsxean eta deserriean ditugun gainontzeko preso eta iheslari politikoeekin», gaineratu du.

Anmistiaren Aldeko Mugimendua agertu duenez, Garmendia 2009ko martxoaren 3an atxilotu zuen Ertzaintzak Villabonan, «eskualdean aurrera eramatean ari zuten polizia operazioaren baitan». Ertzaintzak atxilotu eta inkomunikatu zuen. Atxilotu zutenetik sakabanatu izan dute etxetik ehunka kilometrotara. «Geroztik Soto del Realeko, Valdemoro eta Herrera-ko espetxeetan egon da sakabanatua», zehaztu du.

Elkartasuna

Era berean, pasa den asteburu honetan hiru autobus joan ziren Herrera De la Mancha eta Alcaraz de San Juaneko kartzelatar Tolosaldeko. Guztira 150 bat pertsona bildu ziren beraien elkartasuna presoei zuzenean emateko. Bertara joandakoei «oso giro polita» egon zela nabarmendu dute; «txalaparta, adarjole, musika...» ere izan zelarik espetsxeen inguruan. «Elkartasuna emateaz gain dispartsoiak eragiten dituen istripu nahiz eskubide urraketak salatu genituen», argitu dute. Aipatu behar da, honen harira, igandean dispartsoiak beste istripu bat eragin zuela, Alegian; zorionez ez zituen zauritu larriak utzi.

Udako eskaintza zabala abiarazi du AEK euskaltegiak

Euskara » Uztaileko 40 eta 60 orduko ikastaroez gain bestelako barnetegi eta eskaintza bereziak izango dira udan.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AEK-k udako ikastaroen eskaintzaren berri eman du. Uztailean 40 eta 60 orduko ikastaroen eskaintza luzatu nahi du eta eskolak Andoaingo egoitzan emango dituzte. 40 orduko ikastaroen kasuan, uztailearen hasieratik bukaerara egunero 2 orduko saioak izango lirake eta 60 orduko ikastaroen kasuan, egunero 3 orduko saioak.

Barnetegiak

Bestalde, AEK-k uda honetarako hainbat barnetegi eta ikastaro be-

rezi ere antolatu ditu. Batetik, eskalduntze barnetegiak antolatu ditu «udan euskara ikasteko eta hobetzeko modurik politena», euskaltegi arduradunen hitzetan. Barnetegian denetarik egingo dute: eskolak, txangoak, ekintzak... «egun osoan euskaraz bizitzeko» aukera eskainiko dute, alegia.

Bestetik, familientzako barnetegiak ere antolatu dituzte. «Guraso eta seme-alaben artean euskaraz aritzeko ohitura sendotzeko aparatuko oporraldia da haur eta gurasoentzat», zehaztu dute.

Era berean, jarduerak barnetegiak ere izango dira. «Sukaldaritza, bertsolaritza, antzerkigintza, dantza, pilota, abentura kirola... gustuko gauzak egin bitartean euskara praktikatzeko», argitu dute.

Barnetegi ibiltariak ere antolatu ditu AEK-k. Mintza praktika egin bitartean Euskal Herriko lekuri-

ederrenak ezagutzeko aukera eskaintzen dute barnetegi ibiltariak. «Herriz herri euskaraz ibili eta tokian tokiko euskalkiak eta ohiturak ezagutzeko, bizikletaz edo oinez», azaldu dute.

Bukatzeko, Xiberera ikastaroa ere izango da, Zuberoako euskalkia ikasteko ikastaroa, hain zuzen ere.

Barnetegi eta ikastaro hauen inguruko informazio gehiagorako 902 36 22 94 telefono zenbakira deitzeko edota www.aek.org webgunean sartzeko eskatu dute.

Bestalde, aurtengoan AEK-n euskara irakasle izateko glotodiktika ikastaroa ere antolatu dute. Lehena, uztailean izango da eta saioa erabat presentziala izango da. Bigarrena aldiz, iraila eta urrian izango da. Informazio gehiagorako deitu 943 32 71 72 telefono zenbakira.

Pedro Mari Otañoren jaia, larunbatean

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko zein Leitzaldeko ikastetxe guztietan ikasturte amaierako jaialdiak egingen ari dira

azken egunetan. Larunbat honetan Zizurkilgo Pedro Mari Otaño Herri Eskolakoen txanda da eta egun guztiko jaia izango dute.

» EGITARAUA

- 10:00. Jaieren hasierako txupinazoa eta futbol partida.
- 10:30. Haur jolasak.
- 11:00. Futbol partida.
- 12:00. Ikasleen emanaldia.
- 13:30. Abesbatzaren emanaldia.

- 14:00. Bazkaria.
- 16:00. Puzgarriak, gazteluaren jokoa, ludoteka...
- 16:30. Mus txapelketa.
- 17:00. Elkarren arteko jokoak.
- 20:00. Amaiera eta txupinazoa.



Pedro Mari Otaño Herri Eskolaren jaia larunbatean izango da. HITZA

H Hilberria

JOXE MANUEL ETXENAGUSIA AGOTE

77 urte



Anai-arrebak: Monika (Manuel Iturría), Joxepa (Gaspar Dorronsoroi), Anttoni (Joxe Antonio Uzquidumí), Pakita eta Jesus Almorza, Maritxu eta Eleodoro Orzaiz, Inaxi eta Paskual Barandiaran, Maurizio, Joxe Mari eta Jexuxa (Nicolas Arratibel), ilobak eta gainerako ahaideak.



ERREZIL
2010eko ekainaren
9a

Etxekoak

Oharra: Gorpus Tolosako Oriá beilatokian egongo da, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik aurrera.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA

www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Sendaviva natur parkera txangoa egingo dute uztailearen 3an. HITZA

Uztailean, dantza, musika, jolasak eta gehiago, udalekuetan

Areso » Oporretako lehen hilabeterako, ekintza asko antolatu dituzte; tartean, uztailearen 3an, Sendavivara joango dira.

ERREDAKZIOA

Uda honetan ere Aresoko haurrek ez dute aspertzeko aukerarik izango. Izan ere, udako kirol ekintzak antolatu dituzte Guraso Elkartekoek eta Kirol Mankomunitatekoek, elkarlanean. Gauzatuko dituzten ekitaldien artean daude, besteak beste, kapoira, musikarekin dantzak, jolasak eta gehiago.

Uztaileko goizetan izango dira saioak. Parte hartu nahi duten haurrek, izena emateko garaian, 45 euro ordaindu beharko dituzte. Izena ematen duten haur kopuruaren arabera, horretarako epea, etzi amaizuko da. Aipatzekoa da

hala ere, Guraso Elkartek lagun-tza emango duela ekintza guztiak antolatzeko. Honela, kostuaren erdia bereaiek ordainduko dute.

Sendavivara irteera

Udalekuei hasiera emateko, joan den urtean bezala, Sendavivara irteera egingo dute aresoarrek. Uztailearen 3an joango dira Bardeen ondoan kokatuta dagoen natur parke honetara. Goizean, 09:00etatik irtengo dira herriko plazatik eta 20:00ak aldera itzuli. Izena eman nahi dutenek, hilaren 18a arte izango dute aukera.

Lau urte bitartekoek dohainik izango dute txangoa, 5 eta 11 artekoek berriz, 15 euro ordaindu beharko dituzte, 12 eta 65 artekoek 22, eta azkenik, hortik gorakoek, 15 euro. Bestalde, antolatzaileek ohartarazten dute, parkean, kanpoko janaria sartzen ez dutela uzten.

Emakumezkoen Gipuzkoako I. Ligan lehiatuko dira eskualdekoak

Tolosa » Aurten, Euskotren Ligaz gain, beste hau ere jokatuko da; Getariakoekin batera osatu dute trainerua eskualdeko neskek.

ERREDAKZIOA

Euskotren Liga ez da izango aurten jokatuko den emakumezkoen arrau liga bakarra, Gipuzkoako Liga jokatuko baita estreinako aldiz. Bertan, bost traineru ariko dira lehian, Getaria-Tolosaldearekin batera, Orrio, Zumaia, Hondarribia eta San Juan.

Bost estropada jokatuko dira guztira, eta estropada bakoitzean lau ontzik parte hartuko dute. Ontzi hauek bost proba puntuagarritan ariko dira arraunean, baina proba bakoitzean lau ontzik parte hartu dezaketenez, txandaka ontzietako batek atsedean hartu beharko du.

Guztira, lau estropada jokatuko ditu bakoitzak. Lehen proba hilaren 26an jokatuko dute, Donostian; hurrengoak honakoak dira: uztailearen 18an, Orion; uztailearen 31n, Pasaiain; abuztuaren 8an, Getarian; eta abuztuaren 21ean, Hondarribian.

Laburrak

Amorruaren aurkako txertoak jartzeko aukera

LEITZA » Zakurren amorruaren aurkako txertoa dela eta bandoa zabaldu du Udalak. Bertan adierazitakoaren arabera, lau hilabete baino gehiago dituzten zakur guztiak mikrotxipaz identifikatuta egon behar dute eta amorruaren aurkako txertoa hartuta. Gainera, bi urte baino gutxiagoko epealdian, birtxertatzea derrigorrezkoa da Nafarroan. Hilaren 12an, 10:00etatik 14:00etara bitartean jarriko dituzte txertoak, suhiltzaileen parkean. Zakurren jabeek aurkeztu beharko dute, beraien nortasun agiria eta birtxertatzea baldin bada, zakurra- ren identifikazio liburuxka.

Balkoi, lorategi eta baratza lehiaketa martxan da berriz

BERASTEGI » Aurreko urteetan bezala, aurten ere lorategi, leiho, balkoi eta terraza apainduen txapelketa antolatu du Berastegiko kultura batzordeak. Baina zabaldu egin nahi izan dute, baratza txapelketa ere proposatuz. Lehiaketa parte hartu nahi dutenek hilaren 20ra bitartean eman dezakete izena. Horretarako, 943 68 30 00 adaltekoko telefono zenbakira deitu dezakete edo mezu bat bidali sebas@berastegi.com helbidera. Bertan, zehaztu beharko ditu, izen abizenak, etxearen datuak, telefono zenbakia eta zein txapelketa aurkezten den.

Festa Batzordearen bilera izango da gaur 20:00etan

BERROBI » Bi hilabete baino gehiago falta dira herriko Jaietarako, baina festa batzordea hasi da jada lanean, hauek antolatzeko. Hori dela eta, gaur arratsaldean bilera egingo dute. Bilkura Etxolan izango da, arratsaldeko zortzietan. Batzordekoek herritar guztiei dei egiten die bertan parte hartzeko, eta proposamenak luzatzeko. Festa anitzak eta erakargarriak osatzeko asmoz, adin ezberdinetako jendea biltzea da asmoa, aldi berean, ideia berriak sortzeko. Agustín deunaren omeneg ospatzen dituzte jaiek Berrobin, hau da, abuztuaren 28aren bueltan.



Lauburuko jubenilak berriz txapeldun

IBARRA » Lehendabiziko aldian baino zailtasun handiagoarekin, eta areto futbolearen estreinako jokatzaren zuten Tolosako talde baten aurka lehiatu ostean irabazi dute, Gipuzkoako Txapelketa Lauburuko jubenilek. Partida gogorra izan zen azkena, Escolapios Plomixen aurkako, eta penaltietara iritsi arte, ez zen erabaki garaipea. Hasiera batean berdinketan amaitu zen norgehiagoka. 1-Oean amaitu zen lehen zatia, Laubu-

rukoen alde, baina bigarrenaren azken minutuetan, buelta eman ahal izan zioten Tolosakoek. Hala, penaltietara jokatuta behar izan zuten garaipena. Orain, Euskal Kopako finala jokatuta beharko dute ibartarrek, igande honetan. Bertan, Bilbo izango dute aurkari. Eskoriatzan izango da partida, eta irabaziz gero, hirugarrenen Kopa eskuratuko lukete eskualdeko futbol jokalariek. HITZA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Irteerak

■ **Anoeta.** Alkartasuna Biltokiak ekainaren 17an Beloradora (Burgos) irteera antolatu du 12 euro-tan, gosaria, bazkaria eta bisitak sartuta. Izen-ematea, elkartearen.
■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkarteak Bermeora antolatu du irteera ekainaren 12rako, Busturia jatetxean bazkalduz eta Zarautzen geldituz bueltan. Izen-ematea, elkartearen 30 eurotan.

Kirola

■ **Tolosa.** Takek 3x3 saskibaloitxapelketa antolatu du ekainaren 19rako, alebin, infantil eta koadrilentzat. Parte hartzeko www.takesb.com webgunera jotzea nahikoa izango da.

Kultura

■ **Tolosa.** Tolosa Beantatuz izenburupean I. Graffiti eta Mural Lehiaketa taldeka ekainaren 18an eta 19an. Ekainaren 18an 16:00etan hasiko da lehiaketa eta hurrengo egunean 18:00etan amaituko da. Teknika librean ariko dira artistak, baina guztiak gai berazango dute ardatz, sua, hain zuzen ere. 17 urtetik gorako edonork hartu ahalko du parte eta izena ematean hormetan eginiko bi lanen argazkiak erakutsi beharko dituzte. GKO galerian eman beharko da izena, (garikoitz@gko-gallery.com). Antolatzalea: GKO Galeria eta Tolosako Udala.

Mendia

■ **Tolosa.** Pasai Donibane-Hondarria kostatik irteera antolatu du Alpino Uzturre mendi elkarteak iganderako. Izen-ematea, elkartearen (alpinouzturre@hotmail.com, Gudari kalea, 5, 943 652789). Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute autobusa, eta ez bazkideek 13 euro.
■ **Villabona.** Ekainaren 12 eta

13rako Gavarnie-Tucarroya-Monte Perdido (3.355 m)-Lago Helado-Cilindro (3.328 m)-Casco (3.009 m)-Gavarnie mendi irteera antolatu du Aizkardi elkarteak. Izen-ematea, elkartearen ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara, aizkardi@aizkardi.com edota 649 71 71 82 zenbakian.

■ **Abaltzisketa.** Ekainaren 19an Txindokiko I. Igoera Bertikala izango da, Euskadiko Kopakoa. Izen-ematea 634 497814 telefono zenbakian edo Internetez www.abaltzisketa.net web orrian. Lasterkari federatuek 15 euro ordaindu beharko dute eta federatu gabek 20 euro. Antolatzalea: Larrunari.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikoko Arbola, 3. 943 6510 40.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5.112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5.112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Klik. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erloklip. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Erlo jazz. **12:30.** Zahar Berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Klik. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erloklip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Erlo jazz. **16:30.** Zahar Berri. **17:00.** Muka muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Kafet'erd. **18:30.** On eini. **19:00.** Goierrri errugby. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Lamien artean.

(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduko errepikatuko dute).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Organo kontzertua Kultur Aroan

LEITZA Kultur Aroaren barruan, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko eta Pablo Sarasate Kontserbatorio Profesionaleko hiru ikasleek organo kontzertua eskaini zuten igandean Leitzako San Miguel elizan, hiruak Raul del Tororen ikasleak. Iosu La-

runbek Buxtehude, Peeters eta Regerren obrak eskaini zituen, Teresa Hernandezek Cabezon eta Messiaenenak eta Gonzalo Caballerok Durufle eta Rheinberger-enak. Argazkian, Larunbe (erdian) organoan, beste biak laguntzaile dituela. JOXEMI SAIZAR

A Agurrak



Zorionak!

Nerea Ormaetxea (Alegia).
Gaur 8 urte! Muxu asko etxekoan partetik!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza**
bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 09:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

TARTAL DENDA
-Plaza zaharra-
TOLOSA

Plaza zaharrean
Irakia izango dezute
datozen bi aste
buruetan Ostegunetik
Larunbatera
EKARRAK 10-11-12
17-18-19

**Kolekzio berria eta
Stock eskeintzarekin**